

## Fakturen Kontularitza-erregistroa

### Bigarren maila: informazio xehea

IDAZPURUA	OINARRIZKO INFORMAZIOA	INFORMAZIO OSAGARRIA
<b>Arduraduna</b>	Tratamenduaren arduradunaren nortasuna	Santurtziko Udala Murrieta etorbidea, 6 (48980 Santurtzi) Telefonoa: 94 420 58 00 Posta elektronikoa: sac@santurtzi.eus DBO: Gonzalo Gallo Ruiz
<b>Helburua</b>	Tratamenduaren helburuen deskribapena	Jasotako fakturen idazpena egitea, dela faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrean automatikoki jasotakoak, direla paperezko fakturretan hainbat datu jasotakoak; kontularitza-bulegoak jasotako fakturak balioestea; izapidetze-unitateen bidez faktura horiek kudeaketa-organoetara bidaltzea, hala badagokio, onespena eman dakion ondasuna edo zerbitzua eman eta horri dagokion faktura egin duenari, eta ordaintzeko obligazioaren onarpenari dagokion izapidearekin lotutako gainerako jarduketak burutzea; fakturak ordaintzean izan daitekeen berankortasunaren kontrola, faktura elektronikoa sustatzeko eta Sektore Publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzeko den abenduaren 27ko 25/2013 Legearen arabera Datuak administrazio-jarduerak dirauen bitartean tratatuko dira, eta tratamenduaren ondorioz nahiz urtarilaren 3ko 7/1990 Legearen ondorioz, Euskal Kultur ondareari buruzkoa, sor daitezkeen ustezko erantzukizun juridikoen arabera gordeko dira.
<b>Legitimazioa</b>	Tratamenduaren juridikoa	oinari DBEO: 6.1.a) Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira

	<p>DBEO: 6.1.c) Tratamendua beharrezkoa da tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbeharra betetzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena.</li> <li>– 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki-erakundeei buruzkoa.</li> <li>– 25/2013 Legea, abenduaren 27koa, faktura elektronikoa sustatzeko eta Sektore Publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzeko dena.</li> </ul> <hr/> <p>Baimena ematean oinarritzen diren tratamenduen kasuan, ez duzu datuak emateko beharrik, baina eman ezean, ezin izango dugu zerbitzua eman.</p>
<p><b>Hartzaileak</b>    Lagapenen aurreikuspena</p>	<p>Datuak ondokoei emango zaizkie:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Administrazio publikoetako kudeaketa-organoei, non fakturen kontularitza-erregistroak sortu diren, horiekiko adostasuna emateko eta obligazioaren onarpenerako izapideen tramitaziorako.</li> <li>▪ Zerga Administrazioaren Estatu Agentziari, zerga- eta fakturazio-obligazioak betetzen direla balioesteko.</li> <li>▪ Kontu Epaitegiari eta Autonomia-erkidegoen kanpoko kontrol-organoei, horiek eskatuta, Administrazio Publikoetako fiskalizazio organoak diren heinean, dagozkien funtzioak bete ditzaten.</li> </ul>
	<p>Hirugarren herrialdeei Aurreikusi gabea transferitzeko aurreikuspena</p>
<p><b>Eskubideak</b>    Eskubideak baliatzea</p>	<p>Interesdunak eskubidea du bere datu pertsonalak atzitzeko, datu okerren zuzenketa eskatzeko, ezabaketa eskatzeko eta erabilera mugatzeko nahiz horren aurka egiteko. Horretarako, Udalaren helbidera idatzia bidali beharko du nortasuna egiaztatzen duen dokumentua erantsita, edo bestela, Udalaren egoitza elektronikoa horretarako propio dagoen prozedura elektronikoa hasi ahalko du</p>

Uste baduzu zeure datu pertsonalen tratamendua ez dela egokia izan, erreklamazioa aurkez dezakezu dagokion kontrol agintaritzan:

**Datuak Babesteko Euskal Bulegoa**

Beato Tomás de Zumárraga kalea, 71, 3. Solairua

01008 Vitoria - Gasteiz

Telefonoa. + (34) 945 016 230- Faxa. + (34) 945 016 231

E-posta: [avpd@avpd.eus](mailto:avpd@avpd.eus)

**Jatorria**

Datuak ondokoek eman dituzte

- Interesdunak berak
- Beste administrazio publiko batzuek

Tratatzen diren datu-kategoriak

- Nortasuna: NANA, izen-deiturak, helbidea, e-posta, telefonoa/faxa, erregistro pertsonalaren zenbakia.
- Gizarte-inguruabarrak: ondareak eta ondasunak
- Datu akademikoak eta profesionalak
- Beste batzuk: igorlea, hornitzailea, IFZ, URLa
- Ekonomia- eta finantza-datuak: banku-datuak.